
BERTSOETAN

ZURI

Zure gogoa dakust
arpegi izpietan,
ene euzko maite;
irripar ezilkorra
darizun bitartean
gizon izan zaite.

Berezkoa izan da
euzkoatarreen artean
gizontasun garra;
egizaletasunak
edertu zinduzan, zu,
lagun maitekorra.

Erru bageko senak
emon eutsun bidea
gizonen artean;
illei galdezka nago...
zer zeunken biotzean
zintzotasunean...?

Gaur, euzkotar garbiak
asaba zarreen jarrai,
ori da erraia...!!!

Iñok ez zaitu ilko...
zuk berbiztuko dozu
Euzkadi maitia.

Zapaltzen dozun lurra,
zeurea da sortzetik,
beti, ezilkorra;
ez dago ezpatarik
egiaren aurrean...,
Euzkadi bakarra...

ARALAR

01 lur, gure gain maite...
euskaldunen gogoa
zure fedea zan;
Noz sortu zan arnas au
gizon ta arkaitz artean
malda goitik beran...?

Zer daroa zugana
euzko jende jatorra
onaren bidetan...?
Fedea dau indarra
Mikel'en garaitzetan
ta euzkotarretan.

Zure arkaitz zuriak
otoiaren indarrez
illezkorak dira;
eguzkia ta edurrak
zuek apaintzen dabiltz
goitar agindura.

Aralar'ko mendia,
gallurrak ta gerria
ernai ta sendoa;

pagadi mardulenak
artu dabe eznea,
lurreen erioa.

Zer dakust zugatz ortan,
ain sendo ta ain lerdan
lurraren gainean;
zer dauka mamin orrek
ainbeste semerentzat
gibel urdlian...?

Arkaitz gogorak zaree
euzko gogoa legez
sendotasunetan;
zuen odol zuria
gizon adorea da
zain gorrietan.

ARALAR dirdaitsua,
zure zugaitz bakoitza
edertasunetan,
euzkotar sendoa da
egi zurrak zabaltzen
Aberri miñetan.

ARABA

Argi, irudimena
ondo gabe nai neukez
sentipen bizitan;
ez naz ezerean duin
arrigarri artean
nere intziritan.

Jakiturien guna,
aurten, udabarrian
biztu da lurrean;
amodioz Araba
itxaroten egoan
apaltasunean.

Gizonaren eskua,
Jaungoikozko gogoa,
euri ta eguzki,
ernai, ibili dira
giroaz oparotzen
Araba, maiteki.

Buruak ies ein daust,
begiak lilluratuz
luze-zabalean;
goiko urdiftia, almentsu,
dizdizeratan dabil
urre printzapean.

Maite zaitudan lurra,
guriñez bete zaitu,
al-oro eukanak;
maitegarria zīñan
zure semeen lanetan:
oi! lur sentzundunak.

Gogozko maite mifiak
zugaz bat einda nauka,
ondorik gabea;
agoaren gosea
iruntzi nairik dago
ezti ta esnea.

Zure-ederrez mindu naz
ondasunez beterik
daukazuz erraiak;
Araba'ren babesak
oparotasunean
daukaz iturriak.

PAULIN